

Aranzadik piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 57. alea 2002ko urriaren 25a

Aranzadik

**Eremu Megalitiarra
seinaleztatu du**





**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**

GOL

GOL, S.A. Industriak

Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE


Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

Goizeko 6:30-etatik
aurrera zabalik!!

**Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!**




Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34



**Kiru
Muntaiak**

Blas Elizburu Kortabarria
**Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.**

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20



**Limpiezas
industriales**

Limpiezas

Trejo, S.L.

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE

**FER. S.A.
Industriak**

Eskulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



Kontuz Perretxikuekin II fandanguan bueltia

JON BASAURI

Kilo mordo bat batu ostian, baso illun haura atzian laga eta autuan epeltasuna hartzia zan nahi genduan; poltsak hustu, frutia jan eta ongo gehixagon billa juateko atzera. Bidian iparrrortza eukiko genduan lagun; etsai, berriz, ongoz betetako poltsa astunak.

Baiña egun haretan Ama Lurrak traba mordua jarri zoskun bidian, gure gehixago nahi eta anbiziño guztien ordaiñetan. Sent-saziño hori hartu genduan behintzat: halako baten, lo zeguan basua esnatu eta gure kontra hasi zala; hain justu, ongo beltz txiki bat hartu, erdibittu eta sagarran moduan jan eta gero (alperriko harrokerixia).

Hortik aurrera putaditak errengillaran etorri ziran. Lehenengo, sasi eta otak (ordura artian euren presentziaz jabetu barek genden), arrastadaka hasi jakuzen, lotsagabe. Gero, baso-

ko adar guztiak makurtu egin ziran gure begixen parrera, geu be behin eta berriro makurtzera derrigortuz. Besuetako eta bizkarreko miña; egarrixa eta gosia. Autora heltzeko gogo demasa, baiña gure barruan arduria eta estuasuna; alkarrerri berba erdi esan ez

zan...errekiana. Eta iparrrortzaz paso egittia erabagi genduan, gure instintueri jarraitu eta noraezian ibiltzeko. "Erreskate bat eskatzen bajuagu, ordaindu egin bihar dok?".

Berba serixuak ziran harek, serixoegixak eta gelditu egin giñan piskatian pentsatzeko. Ez genduan nahi Pil-pileango berrietan agertzirik iñundik iñora, eta atzera be iparrrortzari jaramon egittia erabagi genduan, zorionez. Arratsaldeko 5etan edo heldu giñan autora, jota.

Eta badakizue zein izan zan egun hartako sufrimendurik sufrimenduena? Ba, ibili giñan bide luzian onguak baztar guztietan ikusten genduzela, ikusi lehenengo eta ezikusi egin gero, jakiñian poltsa guztiak gaiñezka zerela eta ongorik txikixena be ez zala kabitzen. Aiii... gu gara gu perretxikuak!



arren, bagenkixan hainbeste ongo batutako eden haretatik aspaldi urten genduala, eta ez zala normala autua hain urrin egotia. Lagunak esan zeban azkenian: "Gaizki goiazik. Erreka hau 5 bidar pasau juagu ya aldenik alde, eta honuzkuan behin bakarrik. Brujulia konfundidu egin dok". Egixa

Telegrapak

Stop. Deba ibaixa Gipuzkoako kutxatuena ei da! .Stop. bai? eskerrak! .Stop. zikinagorik ez dao behintzat eta gaitzerdi!. Stop. beste ondorio bat be etara leike, ezta ? .Stop. Deba ibaiko fauna da (daguan apurra), Gipuzkoako faunarik ausartena. Stop. Mendigainian beste dolmen bat topau dabe. Stop.. Stop. ez juan gabez palia hartuta urre zakuen bila. Stop. geuk hartu dittugu ya. Stop. Polikiroldegia oindiok be itxitxa. Stop. Jendia berriz hasi beharko da igarixan ikasten. Stop. beste aukera bat ingurunera egokitxia da. Stop. paitten moduan. Stop. Kasualitatia da baina Stop. Udal tasen igoeraren plenoan ezin izan ginan sartu. Stop. Athletic zaleen bazkarixan, bestetan baino jende gutxiau. Stop. azken emaitzekin lotsatuta ala?. Stop. Ezkerreko idatzixa ez da akats bat. Stop. perretxikuen kontzientziaziño kanpainia da. Stop. Kristalak ez dirala bakarrik apurtzen. Stop. zein izan dan?. Stop. badakigu zein dan baina ez dotsuegu esango...Stop.-lara,laralala...Stop. Laster gaztañerre azokia. Stop. basarritarrez jantzitta ez doianari multia. Stop. muni-pa bat ados dao. Stop. zein dan badakigu baina ez dotsuegu esango. Stop. lara, laralala... Stop.hurrengo alerarte irakurle leial hori !



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.
Telefona 943 75 13 04

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Jon Basauri

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

Erreportaia

Trikuharridun tumuloak egiteko, "hiru harri handirekin gela bat osatzen zen lehenik eta hildakoa edo hildakoak, beste mundurako apaingarri eta objektu ugarirekin barrura sartu ostean, harri txikiz estaltzen zen guztia". Tumuloak berriz, "azpian hildakoa dituzten harri pilak dira".

Tumulo batzuk nahiko egoera txarrean dare



Agenda

Urriaren 30ean

Erretzeari uzteko hitzaldia.
Udaletxeko Pleno Aretoan

Azaruaren 1ian

Domusantu Eguna

Azaruaren 3an

Soraluzeko Perretxiku Lehiaketa
Partehartzailiak: L.H. 2-3 eta B.H.ko
danak. 4 Laguneko taldietan.
Izena emoteko epia: urriaren 31rarte
Izena emoteko lekua: Soraluzeko Udala
Epaimahaia: Galdakao Barrengorri
Mikologia Elkartekuak
Antolatzailea: Udala.



KZ-Laguntza Zerbitzua

(Inpresorarekin, internetarekin edo
ordenagailuarekin duzun edozein arazo
argitzeko)
Informatikarekin zerikusia duen edozein
duda argitzeko.
Dohaineko orientazio zerbitzua: 902
544 545 telef.
Ordutegia: asteko 7 egunetan. Goiz eta
arratsalde.
Eusko Jaurlaritza
Euskadi Informazioaren Gizartean

Kontzertu Didaktikuak

Urtarrilaren 25ian: Blues Zeharreko
Ibilaldia.
Izen emotia: azaruaren 1 baino lehen.
686263474 Telf. (Itziar)
Musika Eskolia
Euskal Herria aurrera

PIL-PILEANEN OHARRAK

Zorion Agurrak

Zure senitarteko edo lagun bat
zoriondu edo agurtu nahi badozu; laga
argazki bat eta bere datuak, Udaletxe
azpiko Pil-pileanen buzoian edo bestela
Iratxo Goxodendan. Argitaratu eta aste-
betera Iratxo Goxodendan eskuratu
ahal izango dituzu berriz.

Gutunak

Gutunen bat argitaratu nahi badozu,
jakin; gutunaren bidaltzaileen (perso-
na edo taldea) datu pertsonalak bidaltzia
biharrezkua dala. Horrekin batera, gutu-
na karaktere baino gutxiago izatia
gomendatzen dogu, luziagua bada, Pil-
pileanek mozteko ahalmena izango
dau.

Informazioa

Aldizkarixan argitaratzia merezi daben
edozein informazio ezagutzen badozu,
deitu elkarteke telefonora eta informa-
zio hori ere argitaratzen ahaleginduko
gara. Herrixan zeozer ezagutaraztia
nahi badozu... deitu Pil-pileanera

Adi, gazte!



ESKAINTZAK

- ***Kamareroa** behar da asteburuetan
lana egiteko 94374-42-65
- ***Sukaldaritza monitorea** behar da kla-
seak emateko 653012907
- ***Pintxadiskosa** behar da tabernarako
943-74-42-65/94374-01-93
- ***Pintxoak egiteko pertsona** behar da.
Kontratuarekin (Ignacio)943-74-27-22
- ***Taberna batean sukaldaria** behar da.
943-79-00-34
- ***Koordinazio lanez arduratzeko langi-
le bat** kontratatu nahi du Laixan euskara
elkarreak 943-71-63-11 tlfonora deitu
edota curriculum Laixanera bidali: San
Juan Kale 2. 1goa 20560 Oñati
- ***Ileapaintzailea** behar da Oñatiko ilea-
paindegi batean 607 81 52 74
- ***Exetresna elektrikoak banatzeko
banatzaile autonomoa** behar da
Almacenes Arrasate enpresan

Langai (Euskal Lan Zerbitzua)

- ***Ingeles begiralea** behar du
Durangaldeko enpresak erref.88804/1
- ***Torneroa** behar du Durangaldeko aldi
baterako enpresak erref.88526/2
- ***2 soldatzaile** behar ditu Gipuzkoako
enpresa batek erref.87706/3
(hautagai moduan sartu nahi baduzu
901222901 tlfonora deitu)

BESTELAKOAK

- ***Altzari zaharrak** jasoko genituzke
615798027
- ***Pisua hartuko genuke alokairuan**
Candanchun eski denboraldirako. Hiru
edo lau lagunentzat 659715722 (Iosu)
- ***Lau txakurkume.** Musutruk
943-76-16-68



Zorion agurrak



Ivan Ayora
Zorionak txapeldun!!!!
2002 - 10 - 30 7 urte
Segi horrela !!
Muxu bat
Etxekuen partez.



Mirari Perez
Zorionak !!!!
2002 - 10 - 30 3 urte
Ondo pasau zure egu-
nian ta txintxo txintxo
portau eeeh
Etxekuen partez.



Daniel Gomez
Zorionak!!!
2002 - 10 - 23
Aupa mutiltxo segi
beti bezain alai.
Etxekuen partez.



Ugaitz Catalan
Zorionak sorgintxo!!
2002 - 10 - 17 20 urte
Zorionak eta jarraitu
orain arte bezela.
Muxu haundi bat.
Pil-pilekuen partez.

Xabier Bengoa

Zorionak!!!
2002 - 10 - 29
Zorionak eta jarraitu
orain arte bezela.
Muxu haundi bat.
Onar eta etxekuen
partez.

Ainara Juaristi

Zorionak sorgintxo!!
2002 - 10 - 16 4 urte
Muxu haundi bat.
Onar eta etxekuen
partez.



Gorka Salaberria
Zorionak !!
2002 - 11 - 3 24 urte
Zorionak eta jarraitu
orain arte bezela.
Muxu haundi bat.
Pil-pilekuen partez.

Zer irizten dotsazu?**Ze eritzi daukazu ehizan inguruan?**

Koldo Heriz
22 urte
Ikaslea

Len garai batian bihar handixa zeuan oin ja ez jata ondo iruditzen. Animala bat afizinuagaitxik hiltzia ez jata ondo iruditzen. Batzuk negozio handixa itxen dabe horrekin.



Begoña Perez de Labeaga
Kooperatibako langilea

Nere gizona ehiztaria da baina neri egixa esateko ez jata zekula asko gustau. Penia ematen doste animalixek.



Gotzon Epelde
46 urte
Langilea

Animalixak hiltzarren hiltzia ez, penia ematen doste animalixek da gainera gero etxian gero trofeo bezela ipintzia ez jata politxa iruditzen.



Nerea Silba
17 urte
Ikaslea

Ehiza geizki iruditzen jata animala batzuk galtzorian daude eta.



Niko Mendia
31 urte
Irakaslea

Leku batzutan animalixak geizkixau egoten dia, saltaixetan eta . Ehiza kontrolpian eta larregikua ez bada ondo.




Anastasia San Jose
80 urte
Jubilatua

Animalixek pena ematen dozte hiltzeko besterik ez dia ta, batzuk gero saldu itxen ditzue eta hori ondo iruditzen jata. Ez dosta asko ardura egixa esan.

Ugaitz Catalan

Javier Alonso Zelaieta

Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfnoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Egoera politikoa salatzeneko ekimenak



Asteburuan "Euskal Herria aurrera" lemapean, "euskaldunok bizi dugun egoera politikoa salatzeneko" gazte talde batek antolatutako ekitaldia egin zen. Ekitaldiaren antolatzaileek adierazi zuten, "erakundeen ilegalizazioak (Jarrai, Gestorak, Batasuna...), euskararen kontrako erasoak (Sanz Nafarroan), atxiloketak, torturak, manifestazio eskubiderik eza eta Euskal Herriaren erabakitze eskubiderik eza" salatu nahi izan zituzten.

Bestalde orain astebete Matxinatuen Korrikaldia egin zen (argazkia).

Txolartek begiraleak behar ditu



Atzeratuen laguntzarako "Atzegi" elkartearen barruan dagoen Txolarte, Deba Barreneko atzeratuen aisiladira-ko elkarteak begiraleak behar ditu. Txolartek, batez ere larunbat arratsaldetan burutzen du bere lana, elkartearen izena emanda dauden pertsonen aisialdiko denbora betetzen lagunduaz; poeteak, irteerak... Elkarte honetako begirale izan direnen esanetan, "oso esperientzia aberasgarria da". Kontakua, 943 75 14 71 telef. an (Maite Narbaiza).

Deba Gipuzkoako kutxatuena

Gipuzkoako Aldundiak Gipuzkoako ibaien kalitatearen 2.001eko ikerketa plazaratu du. Ikerketa horren arabera, Deba Ibaiak Gipuzkoako ibairik kutxatuena izaten jarraitzen du. Badi-rudi, 2.000. urteko datuekin alderatuta Deba ibaiko kutxadura jeitsi egin dela parametro kimikoetan. Azterketak dienez, Eskoriatzara artean uraren egoera oso ona da eta indize biotikoak oso altuak dira. Arrasatetik aurrera berriz industriaren isurketen ondorioz ura zeharo kutsatzen da eta indize biotikoek bera egiten dute nabarmen.



Ekintza bandalikoak asteburuan



Joan zen asteburuan, larunbat gauetik igande goizera bitartean bi ekintza bandaliko gertatu dira herrian. Batetik, Korreosen atariko metalezko plaka bat bere tokitik atera eta bestetik, Gila zubitik jaurtitako zerbeza botila batekin San Ana kaleko 10. Zenbakiko bizilagun baten lehioko kristala hautsi zuten.

KZ-Autobusa izan da herrian



Jaurlaritzaren Euskadi Informazioaren Gizartearen planak bultzatuta, aste guztian zehar KZ autobusa izan da Gila zubian. Ekimen honek autobuseko ordenagailuak erabili eta bertako teknikarien irakaspenak jasotzeko aukera eskeini die herritarrei. Badi-rudi helburua bete dela, eguneko 30 pertsona inguru bertaratzea lortu omen da eta. Gehienak etxekoandre, erretiratu eta ikasleak izan omen dira.



Barra kargadore automatikoak eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa



SAN ANDRES
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

Udal zergen igoera onartu da

Udal Batzarrak urriaren 7an egin zuen bilkuran, Udaleko Ekonomia Batzorde Informatzaileak egindako "2.003rako Ordenantza Fiskalak Aldatzeko Proposamena" onartu zen gehien goz, EAJ, PSE-EE, PP eta EAko aldeko zortzi botuekin eta Sozialista Abertzaleen aurkako bi boturekin.

Aldaketa proposamen honek, udal zergen igoera ekarriko du. Igoera hauek, zabor biltzearena (%12), autoena (%3,4), etxearen gainekoa (%2,) eta urarena () bezelako zergetan igarriko dira. Gobernu taldeak, "justu eta orelatuzat" jo du igoera, Soralezeta- rrek ordainduko duten 5.089 pezetata-

ko tasa, Gipuzkoako 1.000 eta 5.000 biztanle arteko herrietarako biztanleko ezarrita dagoen 5.284 pezetako presio fiskala baino txikiagoa dela eta Mankomunitatearen Udalarari eragiten dioten zergen %19,8ko igoerari aurre egiteko ezinbestekoa dela argudiatuz. Batasunak eta Alderdi Popularrak ostera igoera honen aurrean zuten ezadostasuna azaldu zuten. Batasunak esaterako, zaborren zergaren inguruan azken urteetan Mankomunitateak ezarri duen igoera "izugarria" kritikatu zuen, "gastuen egonkortasunari inolako neuririk ez zaiola ezartzen" argudiatuz.

Ilegalizazioaren aurkako bilkurak

Joan zen asteazken eguerdian, "Ezker Abertzaleko zinegotzi eta zinegotzi ohiek; SIE, HB, EH eta Batasunako zinegotziak izan direnek" kontzentrazioa egin zuten Plaza Berrian. "Faxismoari aurre egin Euskal Herria erai-kiz" lemapean, zinegotzi eta zinegotzi ohien taldeak, "Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoera" salatu nahi izan zuten. Ostegunearan ere, goiburu berdinarekin, kontzentrazioa egin zuten 20 ren bat lagunek Udaletxepean.

Bestalde, Batasuna ohiko zinegotziek, urriaren 14tik 20ra Protestaldi Instituzionala burutu dute batzar guztietan idatzi bat irakurriz.

Iruzurrak gas errebisioetan

Udaltzaingoak jakinarazi duenez, azken hilabete honetan Soralezeta askok gas errebisio faltsuen iruzurra jasan dutela salatu dute. Salaketarik gehienak adineko pertsonen egin dituzte eta "errebisioa" egin ostean 60 euro

kobratu eta kontratu faltsu bat laga ditela azaldu dute. Udaltzaingoak, norbere enpresaz kanpoko teknikariek errebisioa egiten ez uztea gomendatzen du.

Ikastetxeko lanak aurten hasiko dira

Plaentzia Herria Ikastetxeko lanak lehiaketara aurkeztu ostean, eraberritzeko lanak egiteko prest dauden bi enpresaren (C. Arregi eta C. Ugarte) artean hautaketa egin behar du Eusko Jaurlaritzak. Lanak, urte amaiera aldera hasi eta urtebete luzatutako direla aurrikusten da. Bitartean, Udalak Azkarateneko lantegia egokituta du dagoeneko eta datorren urte hasieratik aurrera ikastetxeko lanak amaitu bitartean bertan emango dira eskolak.

Polikiroldegia urte amaierarako

Udalak, Polikiroldegiko lanen 2. Fasearen 203.328,11 euroko aurrekontua onartu berri du. Orqinartean polikiroldegia eraberritzeko lanak itxaroten zen moduan omen doaz aurrera eta Udaleko aparejadoreak jakinarazi duenez, urte amaierarako igerilekua eta frontoia jendearendako zabalik izango direla aurrikusten da. Lanik gehien, kloroak erdoildutako igerileku gaineko burdinezko zutabeak konpontzeak emango omen du.

Bi mozio bozkatu dira

Urriaren zazpian atekak itxita egin zen Udal Batzarrean, Sozialista Abertzaleek Batasunaren Ilegalizazioa salatzen zuen mozioa eta Alderdi Popularrak Guardia Zibilararen aurkako atentatu terrorista salatzen zuen mozioak aurkeztu zituzten hurrenez hurren. Bi mozio hauek ez ziren onartu. Horien ordez, EAJ-EA alderdiak mozio hauen aurrean aurkeztutako mozio alternati- boak onartu ziren.

Banku berriak plazan



Udalak, Plaza Zaharreko bankuak berritzeko Lurkoi enpresak aurkeztutako 3.331,52 euroko aurrekontua onartu berri du. Datorren hilaren hasierarako hasiko dira aldaketa lanak.



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefona 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefona 943 75 13 99
SORALUZE

ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak

Santa Ana, 20 Behea
Tlfona: 943 75 12 41
Sakeleko tlfona: 639 17 96 96



Aranzadik eremu megalitiarra seinaleztatu du

Azken hilabeteotan, Aranzadi Zientzia Elkarteko Historiaurre Sailak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin, Gipuzkoako Megalitoen Seinalizazio eta Zaintza Egitasmoa dararama aurrera. Megalitoen Seinalizazio Egitasmo horren barruan, Elosua-Plazentzia Eremu Megalitikoaren seinaleztatzeko lanak ere hasi dituzte. Dagoeneko Soraluze-Elgoibarko lurretan dauden dolmen eta tumuluak seinaleztatu dituzte eta datorren hilean hasiko dira Bergarakoekin.

Orain bi urte Jaurlaritzako Kultura Sailak Kultura-Hondare izendatu zuen Elosua-Soraluze eremu megalitikoaren. Izendapen horren arira dator orain, Aranzadi Zientzia Elkartek, eremu hau babestu eta ezagutzera emateko helburuarekin Luis Altuna adituaren zuzendaritzapean martxan jarri duen seinalizazio egitasmoa.

Eremu Megalitikoaren arrasto kopururik handiena Soraluze lurretan dagoela eta (9 azken datuen arabera), Jaurlaritzaren laguntzaz gain, Soraluze Udalak ere parte hartu du egitasmo honetan. Aranzadiko kideak, Udaleko ordezkariak lagunduta, hondar megalitikoak dauden lurretako jabeekin izan dira eta euren lurretan jarri dituzten seinaleen eta horren inguruko egitasmo osoaren berri eman diete. Luis del Barrio Aranzadiko Historiaurre Saileko koordinatzailearen esanetan, oso gustora daude Soraluzean egin duten lanarekin eta "Soraluze Udalaren jarrera ezinhobea" izan dela azpimarratu nahi izan dute.

Seinale zaharrak ordezkatu dira

Aranzadi Zientzia Elkartek jarri dituen seinaleak, lehenago Bergarako Kapirixoko Elkartek jarritako eta dagoeneko nahikoa hondaturik zeuden egurrezko informazio-taulak ordezkatu dituzte, marmolezko informazio-harri batzuen bitartez. Kapirixoko Elkartek, Elosua-Plazentziako eremu megalitikoan aurkitzen diren dolmen eta tumulu guztiak garbitu eta seinaleztatu zituen 90.hamarkadan. Orduan Kapirixok egindako lanak, asko



Aranzadik jarri dituen seinalizazioak marmolezkoak dira eta ingurunera egokituak. erraztu ditu Aranzadi Elkartek egin dituen seinaleztatzeko lan berriak eta horri esker Aranzadikoek ez dute inolako zailtasunik izan monumentu megalitikoak identifikatzerakoan. Seinale berriek, dolmen edo tumuluaren izena eta egin zeneko aroa zehazten dute.

Bi helburu nagusi: ezagutaraz-



Kapirixoko Elkartek jarri zituen informazio-tauletako bakarra gelditzen da dagoeneko mendi gainean.


Luis del Barrioren esanetan, egitasmoaren helburu nagusiak bi dira: "bate-tik hondarea ezagutzera ematea eta bes-



Guztira 17 arrasto megalitiko aurkitu dira Elosua-Plazentzia eremuaren. Gehiago ere izan daitezkeela uste dute adituek.

tetik hondarea babesteko neurriak hartzea. Jendearengan hondare honen aldeko kontzientzia piztea azken batean". Jaurlaritzak eremua Kultura-Hondare izendatu eta arrasto megalitikoak zaindu beharreko monumentu izendatu ostean, hondarearen babeserako legedi berri bat ezarri du. Legedi honen arabera, arrasto megalitikoaren eremu hurbilean hauendako arriskutsua izan daitekeen edozein lan (zulaketak, zuhaitz mozketak...) egitea debekatzear gainera, inguruan egin nahi den edozein lanen berri emango beharko zaio Aldundiko Kultura Sailari, berau egiten hasi baino 15 egun lehenago.

“galderarik handiena eta harrigarriena milaka kilo dituzten harriz hariek zela mugitzen zituzten erantzutean datza”



16 Hilobi kolektibo

Kapirixo Elkarteko Lehendakari den Xabier Larrañaga adituak azaldu digunez, Elosu-Plazentziako Eremu Megalitikoan (mega=harri / lito=handi) azaldutako 16 arrastoak, Eneolito-Brontze Aroko (oraindela 5.000 urte inguru) egindako 16 hilobi kolektiboei dagozkienak dira. Hilobi hauen balore arkeologikoa oso handia da eta historiaurreko bizimoduaren gaineko hainbat xehetasun eskeini dute bertan aurkitu diren objektu eta hezur ugariak. Xabier Larrañagaren esanetan, “bi megalito mota daude mendigainean; batetik trikuharridun tumuloak eta tumulo soilak”. Trikuharridun tumuloak egiteko, “hiru harri handirekin gela bat osatzen zen lehenik eta hildakoa edo hildakoak, beste mundurako apaingarri eta objektu ugariarekin barrura sartu ostean, harri txikiz estaltzen zen guztia”. Tumuloak berriaz, “azpian hildakoak dituzten harri pilak dira”. Xabierren esanetan, “galderarik handiena eta harrigarriena milaka kilo dituzten harriz hariek zela mugitzen zituzten erantzutean datza eta oraindik ez daukagu eratzun zehatzik. Hortixik dator, galdera horri azalpen bat eman beharretik hain zuzen, gure aurrekoek sortu zuten eta guganaino heldu

“Arribirilleta” tumulua dela uste du Aranzadi Elkarteak



Aranzadi Elkarteko Historiaurreko Sailak jakinarazi digunez, Kurutzebakar eta Hirukurutzeta artean, lehenagotik ezagutzen zen (Barandiaranek deskribatu zuen) baina orainarte tumulo moduan kontsideraturik ez zegoen hilobi bat aurkitu dute. Tumuloak harri losa handi eta

biribil bat du agerian eta industu gabe eta oso egoera onean dago. Barandiaranek harriaren biribiltasun-oinarrিতා izendatu zuen moduan, “Arribirilleta” izenez bataiatu dute trikuharridun tumulua den hilotia baina oraindik sakonago azertu behar dute.


AIZPURUKO ZABALA



IRUIYA



AZKOIN




PAGOBEDIKATU



NAHASTIKO GOENA



AURKITZEN DIREN KUTUNAK




den jentilen inguruko mitoa”.

Etengabe erasotuak

Harrigarria badirudi ere, Luis Del Barrio adituak azaldu digunez, monumentu megalitiko hauek etenik gabe

“Mendigaineko hilobietan idi-narruz egindako zakuetan urre pilak zeudenaren sinismena esaterako, oso zabaldua izan da Euskal Herrian ”

erasotuak izan dira egin zirenetik gaur egunerarte. Eneolito-Brontze Aroan, “hilobiak egin eta berehala profanatzen zituzten, hildakoaren ondoan utzitako tresna eta aberastasunen bila”. Gerora ere, “mendez mende jarraitu du hilobi horietan aberastasunak (garai bakoitzean dagozkionak) gordetzen zirenen mitoak eta oraindela gutxirarte, batez ere arkeologoak hilobiak aztertzen hasi zirenean, inguruko jendeak altxorren baten bila zebiltzan susmoarekin hilobiak zulatu ditu (sarritan gauez ezkutu-joanda ere bai). Mendigaineko hilobietan idi-narruz egindako zakuetan urre pilak zeudenaren sinismena esaterako, oso zabaldua izan da Euskal Herrian eta baserrietako jende askok jardun izan du hilobiak zulatzeko, urre bila. XX. mendeak aurrera egin ahala, hilo-



Joxe Migel Barandiaranen ehundaka indusketa egin zituen Euskal Herriko leku asko eta askotan. Ahal izan zuenerarte jarraitu zuen lanean.

bietan aberastasunak gordeta zeudenaren ustea ia erabat galdu zen baina erakuntza lanetarako material iturri bihurtu ziren eta etxe eta txabola askotako hormak egiteko erabili izan dira (gaur egun ere horretarako erabiltzen jarraitzen dute leku askotan).

“Barandiaranen taldeak 15 egunean aurkitu edo/eta industu zituen arrasto megalitiar guzti hauek ”

Barandiaranen indusketak (1.920-1.921)

Joxe Migel Barandiaranen zuzendaritzapean, Telesforo Aranzadi (Bergara), Enrique Eguren eta Barandiaranek berak egin zituzten Elosua-Plazentzia Ere-mu Megalitiarreko indusketa lanak. Gaur egun eremu horretan ezagutzen diren hilobi guztiak aurkitu edo/eta arakatu zituzten; Gizaburua, Sabua, Iruia, Atxolin, Atxolintxiki, Aizkoin, Pagobedeinkatu, Näsiko-Goena, Aizpuruko-Zabala, Kützebakar, Irukürutzeta, Keixeta, Keixetako-Egiya Ifarraldekoa, Keixetako-Egiya Hegoaldekoa, Maurketa, Agerreburu eta Trekutz. Xabier Larrañagak argitu digunez, “garai hartako arkeologian ohikoa zen moduan, Barandiaranen taldeak 15 egunean aurkitu edo/eta industu zituen arrasto megalitiar guzti hauek eta ulertzekoa den moduan ezin izan zuten gaur egunean lortuko zatekeen moduko emaitzarik lortu. Hau horrela izanda ere, aurkitu ziren objektu baliotsuak eta inola ere ezin da gutxietxi Barandiaranek, Aranzadik eta Egurenek egin zuten lan aberatsa. Ordutik hona, ezer gutxi egin da garbiketa eta seinalizazio lanez gain eta pentsa liteke beraz, aurkitutako hilobietan egon daitezkeen arrastoez gainera oraindik hilobi asko dagoela aurkitzeko”.

Gehiago jakin nahi al duzu?

Gure historiaurrearen berri damaguten kontu interesgarri hauen inguruan gehiago jakiteko gogoz gelditu bazara, hona zenbait liburu eta elkarteren erreferentziak:

X. Larrañaga. “Deba Haraneko Historiaurrea”. 1.991. Bergara.

J.M. Barandiaran. “Vasconia Antigua. Tras la huellas del hombre (II)”. Obras Completas.VIII. Tomoa. 1.975. Bilbo.


Honetaz gainera, interesa izanez gero, Aranzadi Zientzia Elkartera edo zoritxarrez (arduradun berrien faltaz) abenduan desagertuko den Bergarako Kapirixio Elkartera ere jo dezakezu.

Luis Del Barrio: Añorga Etorb. 14, 6.B 20009 Donostia

Egoitz Unamuno

Barandiaranek egindako indusketen argazkiak (1.921-1.922)

IRUIYA



ATXOLIN



PAGOBEDIINKATU



AIZPURUKO ZABALA



Jose Mari Atxa

“Oillagorretiak daka istorixarik ederrena”

Kaza denboraldixa hillan 12 xan ekin zan, eta otsailera bittartian herriko makiña bat kazari txakurra eta eskopetia hartu eta mendira juango da ia usoren bat, birigarroren bat, erbiren bat edo beste kazaren bat botatzen daben. Jose Mari Atxari oillagorretia gustatzen jako, eta gazte zanetik urtero-urtero horretan saiatzen da Treviño al-dian daken kotuan.

Ze kaza klase egitten da hemen inguruetan?

Hemen jentiak usotan egitten dau asko. Horretarako bihar da postu bat eukitzia, ezkutuan egoteko. Hego haizia dabillenan usua pasatzen da eta postuan daguan kazarixak harek botatzen dittu. Ni usotan sekula ez naiz ibili. Neri oillagorretia gustatzen jata. Gaztetan zozotan eta birigarrotan ibiltzen nitzan, baitta basurdatan be, baiña oillagorretia probau nebanian haretxekin geratu nitzan.

Zer daka ba diferentia oillagorretiak?

Istorixarik ederrena eukitzen dau oillagorrak beti. Asko landu bihar da oillagorra botatzeko. Lehenengo txakur on bat bihar da, eta txakurra izan bihar da kazarixan oso laguna; bixak bat egin bihar dabe. Gero jakin bihar da nun egoten dan oillagorra. Jakin bihar da lehenenguetan mendi altuan egoten dala, eta gero hotzekin eta edurrekin poliki-poliki mendixan behera etortzen dala, goixan janik barek geratzen dalako. Batzuk diñue hotzagaittik jeisten dala, baiña janagaittik izaten da. Hotzak mamorruak hiltzen dittu, eta oillagorrak mamorruak jaten dittue.

Kaza egun normal bat zelakua da?

Urten beti ordu baten egitten dogu, 8:30 etan, legiak hola agintzen dau eta. Eta gero ibili, ibili eta ibili egitten dogu, 4-5 bat orduan. Oillagorretia horixe da, ibiltzia. Ez da usotan moduan leku baten ezkutautu egon eta zain egotia. Eta hola emoten dogu goiza, 5 bat miñuturako geratu ogibittartekua jateko, eta segi.

Nun egitten dozue kazan?

Guk Treviño al-dian egitten dogu. Kotua dakagu han, 14 bat herri hartzen dittuana, eta 200 bat sozio edo han ibiltzen gara. Sasoi baten kanpora juaten gi-



Jose Mari Atxa

ñan, Zamorara, Valladolidera, baiña gaur egunian dana akotautu dago. Plazentzia be oso leku ona da oillagorretarako. Pasatzen da jente larregi ibiltzen dala. Oin bazoiaz, egunero-egunero hogetaka lagun topauko dozu. Baiña lekua ona da. Erbixak be badare Pol-pol al-dian, eta azkonarrak gure baserripien (Asiolatza).

Onguak be batzen ditzuzue?

Parian tokautakuan bai. Gaiñera, ongo asko daguanian normalian oillagorra egoten da. Onguak mamorrua eukitzen dau eta mamorro hau oillagorrak jaten dau. Ongorik ez daguanian oillagorrak jateko gutxi eukitzen dau.

Gauza kuriosorik pasau jatzu iñoiz?

Guri gauzarik kuriosuena Sorian pasau jakun behin. Txopedi baten ibili giñan Bizkai, Aldaso, Arritta eta laurok, eta bueltan herrira goiazela arraixa edo zapelatz haundi bat parian jausi zan. Eriduta zeguan eta hankan hartuta zozua zekan. Eskopetiakin kolpe bat emon buruan eta zozuak ospa egin zeban.

Beste behin, Artzaintxaboletara goiazan goizian goiz kazara eta kamiñuan oillagorra jarri jakun aurre-aurrian, tontotuta argixetara. Koñatuak bota zeban autotik bajatuta.

Beste gauza bat neri poz haundixa

emon zostana izan zan oillagorra kantuan entzutia. Oso gaitza da tokazia, eta nik bi bidar euki neban suerte hori.

Zegaittik dakazue fama txarra, edo gizurtero famia?

Kazarixak eta kazarixak ez diranak be gizurretia asko erabiltzen dabe. Geratzen dira kasu batzuk siñistu ezindako modukuak. Sarritan espliketzen dozu ta esaten dotsue: “Oin be bota dok”

“Bota dok” ez; kazia da gaba mendixan pasatzen daben piztixa bat, asko jakitzen dau, oso argixa da benetan. Zuk pentsatzen dozuz gauza batzuk eta danak urtetzen dotsue alrebes. Horregaittik holako sorpresak egoten dira, onerako eta txarrerako. Oin ba batzuek bai “Zenbat bota ditzuk?”, “bi” eta bape hil ez igual. Horrek be normal normalak dira ezebe barek zatozela ez esatiarren esaten dira horrek gizurrak, baiña danona da hori

Sasoi baten Txokuan danen bistan lagatzen zenduezen botatako piezak. Oin ze tabernatara juan bihar da?

Oin ez doskue iñun lagatzen. Pentsaizu, nerekin dabillen andriak be ez dosta lagatzen beran tabernan irakusten.”Kendu nere paretikan kazarixak eta txorixok” esaten dosta.

Jon Basauri

Futbola

Regionalaren lehen porrota Seguran



Soraluze futbol taldeko nagusiek ezin izan zuten beraien emaitza onekin jarraitu eta 3 eta 0eko emaitzaz galdu zuten Seguraren aurka. Ez zuten partidu txarra jokatu baina ate aurrean izan zituzten aukerak ez zituzten aprobetxatu eta galdu egin zuten. Orain Sora sailkapeneko 9. Postuan aurkitzen da

6 punturekin.

Jubenilei eta kadetei dagokienez azken bi asteetan talde bakoitzak porrot bat jaso du baina ala ere sailkapeneko erdiko postuetan aurkitzen dira.

Emaitzak

REGIONALA.

SORA 3 – Eibartarrak 3

Segura 3 – SORA 0

JUBENILA.

Lehengokoak 3 – SORA 1

SORA 1 – Oiartzun 1

KADETEAK.

SORA 0 – Arrasate 1

SORA 0 – Eibartarrak 0

Athletic zaleen bazkaria Txurrukan



Joan zen urriaren 19-an Txurruka jatetxean Athletic futbol taldearen zale-tu plaentxiarrek urtero egiten duten bazkaria ospatu zuten. 30 bat zaletuk hartu zuten parte eta trikitixaren soinua lagun zutela aurtengo denboraldi hasiera kaxkarrari aurpegi ona jarri zioten.

Pelota

Aritz Laskurainen garaipena Astelenan

Aritz Laskurainek pelotako katedralean garaipena lortu zuen Badiola II aurrelariarekin batera Berraondo eta Urberuaga bikotearen aurka. 18 eta 16 irabazi zuten baina Aritz ez zen oso gustora gelditu huts nahikotxo egin zituen eta. Partidu hau eta gero Aritzek Basaurin jokatu zuen Haritz-ekin batera Muruamendiaraz eta Hirigoien aurka. Partidu honetan Aritz oso gustora ibili zen baina ezin izan zuen garaipena lortu eta 22 eta 16 galdu zuten. Hauek dira paradokaxak ongi jokatuak partiduak galdu

eta kaxkar jokatuak irabazi.

Erlei Txurrukak ezin izan zuen DV txapelketari dagokion partidua irabazi. Gomez atzelariarekin batera 11 eta 16 irabazten joan eta gero 22 eta 16 galdu zuten. Partiduko azken tantuetan ez zuten ongi jokatu eta ez zuten 22-ra iristeko paradarik izan.

Jon Varelak interklubetako txapelketa Elgetako klubarekin jokatu du Eibarko klubarekin jokatu beharrean. Aldaketa hau federazioaren barnean izandako erabaki batzuen ondorioa da.

Bolojokua

Euskadiko III. Bolo txapelketa San Andresen



Zapatuan jokatu zen San Andresen Euskadiko III. bolo txapelketa. Partehartzaile asko izan zen bertan.

(Hurrengo alean jakinaraziko dizkizuegu emaitzak)

Xuban Catalan



BELARRAK
LORADENDA ETA BELARDENDA
EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU



Santa Ana, 2 behe
Tel.: 943 75 30 11
Eskukoa telefonoa: 646 43 90 40
20.590 SORALUZE

Telefonoa 75 24 09

ARRANO
tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera



Prudencia Hidalgo

“Operación Triunfo ta bihotzeko programak asko gustatzen jataz”

Kalian goiazela hemen topau dogu Prudencia Hidalgo Alabia lagun dabela errekauek eitten. Gogo haundirik ez zeukala baina azkenian lortu dogu grabagailuari hitz batzuk botatzia. Egizalia ta familixiaz arduratuta, gaurkuan Ezoz Bideko amakume hau ezagutzeko aukeria euki dogu.

Izen, abizena, edadia eta lanbidia:

Prudencia Hidalgo, 42 urte eta etxeko-andria

Afiziñoren bat

Jostia asko gustatzen jata, laboriak bereziki

Egun bateko planik onena

Etxian egotia zehozer eitten

Bapo geratzeko moduko bazkarixa

Lehenengo paellia, gero tajadia ta postre moduan flana

Manixa bat

Garbiketak, dana garbi ta txukun eukitzia gustatzen jata

Animalixa, koloria, tokixa ta abestixa

Txakurra, zurixa, Soraluze ta Manu Tenorio

Irla desertu batera eruango zittuzun hiru gauza

Nere senarra, aldizkariren bat ta musikia

Laboriak asko gustatzen jatzuzela, zer eitten dozu bereziki?

Gehixen bat punto de cruz, gantxillua ta jartziak. Lehen gehixao eitten nituan baina oin seme-alabek ez dabe nahi izaten ta bateron batek eskatzen bosta bakarrik eitten dittut.

Desiorik haundixena?

Osasuna familixa osuantzako

Sukaldian ibiltzia gustatzen jatzu?

Sukaldian ibiltzia baino nehixao dot garbiketak eittia.

Ointxe udazkenian garela, zer etortzen jatzu gogora?

Tristoria. Udazkena tristia pentzatzen jata, bizkorrago iluntzen dau...

Zer miresten dozu jendiagan?

Konportamendu ona eukitzia

Bertso Begiz

Prudenciari gustatzen jako jostia ta telebista.

Bixak batera egitten dittu, hau bai dala hau artista!

Osasuna desio, ta Manu Tenorio

bere estiloarekin.

Zeinek sinistu juango zala irlara senarrarekin.

Etxebarri

(Doinua: Iparragirre abila dela)



Prudencia Hidalgo

“Ezin dot jasan gizurretan ibiltzia”

Ta zer ezin dozu jasan?

Ezin dot jasan gizurretan ibiltzia

Telebistako programa bat

Operación Triunfo ta bihotzeko programak asko gustatzen jataz.

Txikitxako oroitzapenen bat?

Txikitxatikan hobetuen María Teresa andereñua gogoratzen dot. Ez onian ta ez txarrian baina asko zigortu ta jotzen ginttuan.

Enara Agirre



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Argazki zaharra



Santa Anako lanak 1.977

Santa Anako Agustinatar monjen konbentua botatzeko lanak. 1.977ko irailaren 19an hasi ziren arkuia eta konbentua botatzeko lanak.

Egoitz Unamuno

Barre-barra!!!

Arratoi batek xaguxarra aurkezten dotsa beste arratoi bati:

- Zelako zatarra!!!
- Bai! baina pilotua da gero eeeh!!

Kike Amonarriz



Behin ezkontza batera joan, mezetan kantatu eta jatexera joan ginen. Han mokadu bat egiten ari ginela, gonbidatuak iritsi ahala denek sorpresa hartzen zuten, "hara! bertsolariak ere baditugu ta!" Ezkonberriak iritsi arte ez ginen konturatu hura ez zela gonbidatu gintuzten ezkontza..."

Sebastian Lizaso

Lehiaketa

Errautsera arteko sugarra

Egilea: Imanol Zurutuza

Errautsera arteko sugarra du izenburua lan honek, bizitzaren metafora biltzen duen izendapen batez: errautsera iritsi arte irauten duen sugarra. Bizitzaz hitz egiten baitu batez ere liburu honek, baina baita heriotzaz ere.

Galdera: Zein izan da Espainiako Literatur Sari Nazionalaren irabazlea?

"Errautsera arteko sugarra"-en BI ALE DITTUZU ZAIN Aurreko lehiaketako irabazlea: M. Jesus Oresagasti Erantzuna: Haritza



Lonbide taberna

*Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak*

**Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07**



Lakuesta

Optika




Ikusmen arazozen frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

**Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59**





Ugaraxo

Ikastetxeko bigarren zikloa San Andresera



Ikasturtearen sarrera biguntzeko asmotan, 2. Zikloko irakasle eta ikasleak San Andresera igo ginen irailaren 11n. Ia ordu beteko bidea egin genuen jolas eta txantxa artean.

Hara heldu ginenean, otartekoa jan, iturriko ur freskoa edan, eta batzuk frontoian pelotan ziharduten bitartean, beste batzuk ziburu-zabuetan gozatu ginen; konturatu baino lehen etxera itzultzeko ordua heldu zitza-

igun.

Bueltan, Argateko bidezigorretik jaitsi ginen, tximista baino azkarrago.

Zelako goiz ederra pasatu genuen...! Eguraldia ere portatu zen. Ostiral guztiak horrekoak balira...



2

Ugaraxo

Berriak-Berriak-Berriak-Berriak-Berriak

Kirolariekin jolasean



Edurne Pasaban Cho Oyuko gailurrean

Gure laguna den eskatzaile ospetsua, Edurne Pasaban, 8.201m dituen Himalayetako Cho Oyu mendira igo zen, urriaren 5ean. Igoera nahiko zaila izan zen, egun batzuetan oso eguraldi txarra jasan zutelako (haizeak eskaladarako materialez beterik zuten denda bat eraman zien), baina oztopo guztiak gaindituz gero, gailurrera heldu ziran goizeko 8etan (Euskal Herrian gizaldeko



4rak). Edurnerekin batera, beste Euskaldun bat ere igo zen, Jose Ramon Agirre atandarra, hau parapentez jaitsi zen III. Kanpotik Oinarrizko Kanpora.

Haxe izan da Edurnek aurten lortu duen bigarren 8.000a. Orain dela hilebete batzuk, Makalura igo zen. Aurretik, Everest, munduko mendirik garaiena menperatzea lortu zuen.

**Zorionak, Edurne,
eta segi horrela!**

Planeta berri bat aurkitu dute

Zientzilari amerikarrek Eguzki Sistemako oraingoz azken planeta dena Hubble teleskopioaren bidez aurkitu dute. Planeta honek izotz-esfera erraldoi bat da eta gure Lurratik 6.000 milioi kilometrotara dago, Plutonetik 1.600 milioi kilometrotara.

Planeta berri honi Quaoar izena jarri diote eta izotzez eta arkaitzez eratua dago, kometen antzera, baina kometak baino ehin milioi bider handiagoa da. Quaoarrek, 288 urte behar ditu Eguzkiaren bira osoa emateko.



Berriak-Berriak-Berriak-Berriak-Berriak

Liga bukatzen denean, zein egongo da sailkapenean gorago, Reala edo Athletic?

NEREA GARCÍA 10 urte

Bai ikusten dot, gauza gaiztuak itxen dittu. Behin zeguan kriston txixaguriakin eta gero txixa ein eta bueltan dator pitilina bistan dabela.



ARITZ ALBISUA 10 urte

Pixkat txarto hasi bada be, Athletic-ek gorago amaittuko dabela pentsatzen dot.

IRATI GIL 11 urte

Ez dotsat futbolari asko jarraitzen, baina Reala gorago egongo dala pentsatzen dot.



OIER ARIZNABARRETA 11 urte

Reala egongo da lehenao, Championera juango da. Athletic bigarren mailara jaitsiko da.

Ikusi Makusi Zein Ikusi?



Zein da alboko argazkian agertzen dan emakumia ?

Zein dan baldin badakizu,
DEITU

943 75 13 04 (Pil Pilean) telefonora
eta emon zure erantzuna. Emon zure izen abizen eta telefonua.

Asmatu ezkerro **liburu edar bat** irabaziko ahal izango dozu.

Aurreko aleko irabazliak:

Andoni Odriozola eta Eneko Arizaga
Erantzuna: Maite Gorostidi
Saria IRATXO dendan eskatu

Esaisu...(amodiozko, zorion agurrezko..... mezuak)

Andereño eta maisuak ez deixela kopixarik eta zigorrik bialdu (Maite). Soraluzeko mutiko guapoei; Leo, Urko A., Jon L., Mikel J. muxu haundi bat. (Leire, Irene, Nekane, Kataeiñe, Maitane, Ane eta Nerea). Esan zoskuen

umiendako zerbait eingo zebela. Baina ikusten dou, oindio ez dabe ezer ein espabillauak (Lore G., Ixone I., Jone A., Miren G., Oihane L). Zorionak Mariamer Muñoari, zure 6. mailako 3 ikasle jatorren partez (Marta,


Katia eta Mireia). Plaentxiako neskak poliittaguak izatia nahi genduke (Gaizka A., Beñat S. Eta Oier A.). Etxekolan gutxiago bialdu andereño (Ohiane A., Ane K., Ainhoa M., Maialen A., Nerea N., Aitana C., Ander G.).

4

Ugaraxo

Denborapasak _____

Libek labirinto hau gurutzatu behar du, baina bi gauza berdinekin topo egin gabe. Lagundu ezazu!!



Txistiak

Txupatxups batek esaten dio piruleta bati:

- Burua zapaldu dizute, ala?



Badoa Lazkao Txiki kotxea gidatzen eta STOP-ean ez da gelditzen. Polizia agertzen da eta esaten dio:

- Alto!

Eta Lazkao Txikik:

- Ez, ni alto ez, ni bajo.



Bi marrazki hauen artean, zazpi desberdintasun daude. Ea aurkitzen dituzun!!

Juan Mari
Arraindegia

**Eguneroko
arraina
eta konjelatuak**

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789




Electricidad LAU, C.B.

MONTAJES - INSTALACIONES INDUSTRIALES
BOBINADOS - AUTOMATISMOS - REPARACIONES

Barrio Olea, 3 bajo
Tel. 75 12 34

20950 SORALUZE

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

JABIER ALBERDI

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES



ARRATE IRRATIA

**asteartero
12:40an**

**Soraluzeko berriak
zure etxean.**

Pil-pileanen eskutik.



**EGUNKARIA
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
GEHIAGO ORDAINDU GABE**

ETXABURUETA, 4
20590 SORALUZE
Tlfnoa: 943 75 13 20

Gaztañerre 2002



Gu basarritarrez
jantzita goiaz!

eta zu?

Animatu ta jantzi!!



 pilpilean



Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik
2002 urteko autoa da Europan



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatuendako laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

ETORMOBIL
Otaola etorbidea 22
Tel.: 943 20 09 66
EIBAR

307 
PEUGEOT